

## Donosti'n, Aldundi-Jauregian, 1922'ko Ilbeltza' ren 27'an.

Auréz aipatu diran Euskaltzain berak bildu dira; urgazlerik batez. Azkue jauna maipuru.

1. Euskaltzaindia'ri Gernikako *Congreso Vasco*'n dagozkiyon lanen atontza:

a) Schuchardt, ta Uhlenbeck, ta Menendez Pidal'i itzaldi-nagusi-yetarako deituko zaye. Lenengoa etoriko ote dan zalantzan egon ezin ditekkelako, Euskaltzaindia'k Urtel-jaunari itzaldi nagusi bat egotziko diyo. b) Ikasbidetako lanak onela egotzi dira: *Fonética vasca* Navarro-Tomas jaunari. *Fonética gramatical* Gavel jaunari. *Semántica* Euskaltzainburuari. *Literatura vasca antigua y moderna* Urkijo jaunari. *Toponómastica* (histórica) Kanpion jaunari ta *Verbo sintético vasco* Albert Leon jaunari. d) *Sesiones* deritzan taldeko batzordeburu euskaltzainbat izango da. Talde ontako gayak: *Enseñanza del Euskera*.—*Enseñanza en Euskera*.—*Fomento del Euskera en las clases cultas*.—*El gran diccionario euskérico*.—*El Euskera y la Iglesia*.—*El Euskera y el Estado*.

Gaurtandik, talde ontako lanak artu ditezke. *Eusko-lkaskuntza*'ra, Donosti'ra, bidali bear dira.

2. Euskaltzainburuak *afijos vascos*-en irakurtza jaraitu du.

3. Euskaltzainburu berak dasa, *Triangulación de Bizkaya* deitzen dan lana, angoxe Aldundia'k eskuartean dakařela, ta Aldundi'koak Euskaltzaindia'ren laguntza eskatzen dutela. Onek, gogo aundiz, lagun

egingo du; bañan lan oyen gayak osorik oraindik ez daudelako, Joñailerako laga da onetxen ardura.

4. Aita Zabala-Arana'k bere *Edesti Donea* Euskaltzaindia'ri ageřtu diyo, aletxo batzuek artzeko arren egiñik. Apaiz jaun langile oni bere lanari dagokiyon saritxo bat lendik Euskaltzaindia'k eman diyo, ta ez du, besterik eman beař diyonik, uste. Auxe bide dala, Euskaltzaindia'k erabaki du: auřerantzean beronen-gandik saria nai duten lanak, irarřkolara baño len, berak ikusi ta azteřtu nai lituzke.

Ta beste gairik ez izanik, otoitzaz, amai eman zayo batzařaldi oni.

---

### Bilbo'n, Euskaltzaindia'ren bein-beineko etxean, 1922'ko Otsala'ren 23'an.

Batzařaldian bildu ziran, ementxe aipatzen diran euskaltzain jaunak: Azkue, maipuru, Eleizalde, Urkijo, Lakonbe, Landeřetxe, Intza, Altube, Eguskitza, Olabide, Intzagarai ta Nazario Oleaga, urřgazlea.

1. *Jaur-sailak* erabaki abek dakařzki: a) Irakuřtzen ikasteko lenengo mařako liburutxo bat azaltzea, Eleizalde jaunaren arđurapean utzi da. b) Lekuona jaunari beřiro idatzi beař zayo, bidali dezala lenbailen Durango'ko idaz-lanen bere aburua. d) Eleizalde jaunak Euskaltzaindia'ri ekařiko diyo bere *Zenbakiztia*, onetzaz zeř egin beař dan erabaki bat artzeko. e) Aita Ariandiaga'ren *Geometria*, Olabide ta Eguskitza jaunak azteřtu bezate. g) *Eusko-Ikaskuntza*'k lenengo